

Inon baino alaiagoa izanen da

Nire lanbidean nekez ekingo nukeen nire ametsen filosofia baztertuko banu. Ni naizen berezko mosaikoa gidatzen duten natura eta indarra hitzez adierazi behar banitu, maitasun politikoarekin has ninteke seguruenik. *Jakin* aldizkariak azaldu duen moldean, *maitasuna* eta *politika* terminoak esaldi berean irakurtzea arraro bilakatu zaigu. Izan ere, *politika* hitzak aro honetan bere zukua eta zilegitasuna galdu egin ditu. Hitzak berak ez dira sinesgarriak



Bi pertsona elkarri eskuetatik heltzen. SYLVAIN SENCRISTO

gaur egungo politikarien ahotan: askatasuna, demokrazia... Muturreraino eraman da sofismarik okerrera: egin esaten dudana eta ez egiten dudana.

Baina ez dugu amore eman behar. Maitasuna politiko da, politika maitasuna izan daitekeen bezala. Egia da legebiltzarrek edo botereguneek orokorrean ez dutela maitasunaren edo sentimenduen irizpide ofizialik. Gobernatzaileek ez dute sekula maitasunaren sailbururik edo sentimenduen goi kargurik izendatzen. Baina sentimenduek ez al dituzte erabaki eta irizpide politikoak eragiten? Eta erabakiguneen zutabe esanguratsuenek (ekonomia, zor publikoa, immigrazioa, lana, gerla, arlo soziala, osasungintza, hezkuntza...) eragin zuzenak dituzte norbanakoen sentimenduetan eta maitasun harremanetan. Hori dena bereizi ezina da.

Halere, mundua bezain zaharra da emozioak, sentimenduak zeregin publikotik baztertzea. Politikan, duda, zalantza, negarra, poza, ahultasuna... tabu bat bilakatu dira. Kargudun batek bihotzeko zirrikitu bat ikusten utziko balu, susmagarria izango litzateke, fidagarritasun eskasia handiz ikusiko genukeen. Baina zertarako baztertu hainbeste sufrikario, poz, arrangura eta betetasun eskaintzen digun maitasuna pentsaeratik? Zertarako aldendu debate publikotik eta elkarbizitzako erabakiguneetatik? Zer da ezkutatu nahi dena? Zer da ito behar dena? Maitasuna beldurgarria bilakatu ote da maskara batekin estali behar izateko? Garai batean, Guardia Zibilak trenetan bi gauza debekatzeko zituen: euskaraz hitz egitea eta musukatzea. Maitasuna gure hizkuntza bezala, jazarpenaren habia bilakatu ote da?

Maitasun hitza, berez, hiru zu-

tabetan oinarritzen da: desioa (sortzailea eta asmamen handikoa), laguntasuna (alaita eta baldintzarik gabekoa) eta empatia (elkarrenganakoa). Maitasuna ez al da, beraz, elkarbizitzarako baldintza guztien oinarria?



LAUHAZKA
Ximun Fuchs

Adostu dezagun *politika* terminoa. Politikoaren arloa hauteskundeek errealizatutako kudeaketa eginkizun bat bezala ulertzen da gehienetan. Dekretuak, normak, handioseko diskurtsoak, zenbakiak, dogmak... Bihotzik eta arimarik gabeko eginkizunak. «*There is no alternative*», zioen Thatcher andere krudelak. Baina politika beste era batera ulertu daiteke: justizia gisa. Justiziak, garen guztia kontuan hartuz, ezberdintasunak malgutzen ditu. Ez gaitu leuntzen izaki neutro edo kontsumitzaile arrunt gisa, ez, gure izaera guztien aberastasunak kontuan hartuta, esku zabaltasunerako joera normalizatzen du. Egunerokotasunean, pertsonen edo arloen mugarik gabe, kooperazioan ekiten du. Bizidun guztientzako marrazten den arte bat. *Arte* hitza eransten ahal zaio bai, zeren finezia handia behar da zintzoki aritzeko politikan, jende askoren bizitza jokoan jartzen baita. Justizian sinesten duen politika ezinbestekoa zaigu. Maitasuna subertsiboa da, araudiak urratzen baititu.

Kooperazioa amesten dut, maitasunetz beterikoa, oldarkorra eta errotik politikoa. Gure biziraupenaren giltza kooperazioan datza. Nagusitasuna, beldurra, lehia, potentzia, indartsuenaren legea... ezinbesteko heriotza baten promesak dira. Kapitalismo neolitikotik ateratzeko bidean, kooperazio alai eta oldarkorrean amesten dut. Nire aitatxik, nazien aurkako erresistentzia aipatzen zuenean, hauxe zioen: alaiak ginen, askeak ginen eta zorrotzak arlo guztietan.

Utopia ez da ameskeria, utopia pragmatismo hutsa da. Zeren mundu hau berez eroriko da, pandemiak zerbait irakatsi digu: amaitu dira jolasak. Orain, zentzuzko zerbait asmatu behar da, bizitzan oinarritua. Lotu ditzagun etikoa eta teknikoa, eraiki ditzagun gure utopien baratzeak, zutabez zutabe: maitasuna, justizia, kooperazioa. Inon baino alaiagoa izanen da...

Joaquín Achúcarro, Patxo Telleria, Mikel Martínez, Adrián García de los Ojos, Bilbao Orkestra Sinfonikoa BOS, Vanessa Goikoetxea, Mikeldi Atxalandabaso, Rubén Fdez. Aguirre, Ramón Barea, Itziar Lazkano, Aitziber Garmendia, Sol Maguna, Maribel Salas, Gemma Martínez, Alicia Amo, Asier Polo, Lucía Lacarra, Matthew Golding, Bilbao Sinfonietta, Jone Martínez, Maite Maruri, Passamezzo Antico, Miren Gaztañaga, Itxaso Quintana, Mikel Losada, Gabriel Ocina, Gurutze Beitia, Iñaki Maruri, Jon Fresko, Andeka Gorrotxategi, Olatz Ganboa, Diego Pérez, Bernardo Atxaga, Joseba Apaolaza, Juan Paños, Eñaut Elorrieta, Calixto Bieito, Jokin Oregi, Fernando Bernués, Imanol Ituiño...

Antzeztokira itzuliko gara

Ekainaren 17tik uztailaren 23ra

www.teatroarriaga.eus

#BilbaoUda.2020

Bilbao

EL CORREO

Deia

Bizkaia

bbk

SEIZ

FCB

inaem

mirreagan
Lingua



130
URTE
TEATRO
ARRIAGA
ANTZOKIA

Kooperazioa amesten dut, maitasunetz beterikoa, oldarkorra eta errotik politikoa